

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**107/2019 Foru Agindua, apirilaren 5ekoa, zeinaren bidez onesten baita María Ángeles Sopolana García izendatzea behin-behinean eta halabeharrez Erriberabeitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzeko**

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 21eko 188/2019 Erabakiak ebatzi zuen gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko 2018ko lehiaketa bateratua.

Eta, haren bidez, Carmen Luque Morenori, Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostuan zegoen gaikuntza nazionalako tokiko funtzionarioari, beste lanpostu bat esleitu zitzaion beste toki erakunde batean, eta ondorioz, lanpostua uzteko eskaria aurkeztu zuen Erriberabeitiko udaletxean, 2019ko apirilaren 1ean.

Aipatutako foru erabakiak, halaber, Carmen Rojo Pitillas andeari esleitu zion Erriberabeitiko Udaleko idazkari lanpostua. Baina funtzionario horrek eskaera egin du Erriberabeitiko lanpostuaz jabetzeko epea hilabetez atzeratzeko, eta, horrenbestez, udal interesdunak eskaera egin du bertako karrerako funtzionario bat behin-behinean eta halabeharrez izendatzeko, lanpostua betetzeko, lanpostuan zegoen pertsonak lanpostua uzten duenetik titular berria lanpostuaz jabetzen den unera arte, alegia, maiatzaren 3ra arte.

Hortaz, korporazio horretako karrerako funtzionario María Ángeles Sopolana Garcíaen behin-behineko izendapena proposatzen du.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Kontuan hartu da Toki administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa —Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta—, non finkatzen baiten toki korporazioetan aldi baterako halabeharrezko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Ángeles Sopolana Garcíaen behin-behineko izendapena egitea, Erriberabeitiko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzeko, 2019ko apirilaren 2tik maiatzaren 2ra, biak barne.

Bigarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Erriberabeitiko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 5a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren  
eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*  
**MARIA PILAR GARCIA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**